

EHUko DOKTOREGO SARI BEREZIEN DEIALDIA 2024/2025 IKASTURTEA

UPV/EHUko Estatutuetan (17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa) Graduondoko Batzordeari ematen zaio doktoregoko sari berezien esleipena onartzeko eskumena (90.art.).

EHUko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegiak, 2024ko apirilaren 25ekoak, XV. atalean arautzen ditu doktoregoko sari bereziak. Zehazki, 64.1 artikuluan esaten denez, "Ikasturte bakoitzean ezarriko dira uneko deialdiaren baldintzak, eta horietan oinarrituta, doktoregoko sari berezi bat emango da defendatu diren hamar doktorego tesiko edo hamarretik beherako multzo bakoitzeko, honako arlo hauetan: Zientziak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; Arteak eta Giza Zientziak. 64.2 artikulua dioenez, sari berezien deialdia Doktorego Eskolak egingo du, eta Graduondoko Batzordeari bidaliko dio, horrek onar dezan.

Hori dela eta, EHUko Graduondoko Batzordeak, 2026ko urtarrilaren 19ko bileran, 2024/2025 ikasturteko doktoregoko sari berezien Deialdia egitea erabaki zuen, Doktorego Eskolak proposatuta eta honako oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA EREMUA

Deialdi honen helburua da 2024/2025 ikasturteko tesirik bikainenei aitortpena egitea doktoregoko sari berezien bidez, UPV/EHUko Estatutuetako 90. artikulua betez eta Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegiko 64. artikuluari jarraikiz.

Ikasturte bakoitzean doktoregoko sari berezi bat emango da defendatutako 10 doktorego tesiko edo 10eko zatiki bakoitzeko, arlo hauetako bakoitzean: Zientziak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; Arteak eta Giza Zientziak.

2. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

64.4 artikuluari jarraituz, eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- A. Doktorego tesia UPV/EHUan defendatu izana 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitartean. 2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitartean tesia defendatu dutenak, amatasun edo aitatasun baimena izan badute, 2024/2025 deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira, baldin eta 2023/2024 ikasturteko deialdira aurkeztu ez baziren. Era berean, 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitartean tesia defendatu dutenek, amatasun edo aitatasun baimena izan badute, 2025/2026 ikasturteko deialdian egin ahal izango dute eskaria, deialdi honetara aurkeztu nahi ez badute. Beharrezkoa izango da baimen hori baliatu izana defentsaren datatik eskariak aurkezteko azken egunera (ikus 3.1 oinarria) doan tartearen barruan.
- B. Doktorego tesiko epaimahaiak erabaki izana tesia sari berezira aurkezteko modukoa dela eta *cum laude* aipamena aho batez eman izana.

- C. Defendatutako tesiaren ondorioz, nazioartean izen handiko aldizkari batean argitalpen bat gutxienez onartua izatea, edo patente bat gutxienez aurkeztua izatea. Arte eta Giza Zientzietako eta Gizarte eta Lege Zientzietako tesien kasuan, argitalpena liburu bat edo liburuko kapitulu bat izan daiteke, baina Argitalpen Akademikoen Kalitate Zigilua izan beharko du, edo «*Scholarly Publishers Indicators in Humanities and Social Sciences*» delakoan egon beharko da. Argitalpenen data egon beharko da doktorego programako lehen matrikularen datatik eskariak aurkezteko epearen azken egunera (ikus 3.1. oinarria) doan tartearen barruan. Argitalpenak onartzeko, ezinbestekoa izango haietan adierazita egotea doktoregaia EHUko kidea dela.

3. ESKARIAK

3.1. 3.1. Eskariak aurkezteko era eta epea

Eskariak on line bete beharko dira (<https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/doktorego-tesia/sari-bereziak>) eta EHUko Doktorego Eskolari zuzendu beharko zaizkio. Eskatzaileek egiaztatzen ez badute deialdi honetako 2. oinarrian ezarritako C baldintza betetzen dutela, formularioan horretarako dagoen atalean egiaztatu ere, ezetsi egingo dira haien eskariak. Baldintza hori egiaztatzeko, ziurtagiri ofizialak aurkeztu beharko dituzte, edo ebidentzia baliodun eta egiaztagarriak.

Eskariak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdi hau goian aipatutako web orrian argitaratzen den egunetik hasita. Aurkeztu beharreko dokumentuak deialdi honetako 3.2 oinarrian zehaztutakoak dira. Eskatzaileak eskari bat baino gehiago aurkezten baditu ezarritako epearen barruan, jasotako azken eskaria baino ez da aintzat hartuko, eta baztertuko da aurreko eskariekin batera aurkeztutako dokumentazio guztia.

Epez kanpo aurkeztutako eskari guztiak baztertu egingo dira.

3.2. Aurkeztu beharreko dokumentuak

- A. Interesdunaren eskaria, EHUko Doktorego Eskolari (DORe) zuzendua.
- B. Eranskina, tesitik eratorritako ekarpenekin. Adierazi beharko da zein lotura duen bakoitzak tesiarekin. Eskatzaileak ekarpenen kalitate zantzuak ere aurkeztu beharko ditu. Ekarpenen data egon beharko da doktorego programako lehen matrikularen datatik eskariak aurkezteko epearen azken egunera doan tartean.
- C. Eranskinean aipatutako ekarpenen egiaztagiria. Eranskinean alegatutako merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko, eta ezinbestekoa izango da tesitik sortuak izatea eta eskatzaileak haiek dokumentuz egiaztatzea eskariak aurkezteko epearen barruan (3.1 oinarria), horretarako ziurtagiri ofizialak edo ebidentzia baliodun eta egiaztagarriak aurkeztuz. Ez da onartuko autoziurtagiririk, ezta eskumenik ez duten pertsona fisiko edo organoek egindako ziurtagiririk ere. Argitalpenak onartzeko, ezinbestekoa izango haietan adierazita egotea doktoregaia EHUko kidea dela.
- D. Amatasun edo aitatasun baimena hartu izanaren egiaztagiria, hala badagokio.

4. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA

4.1. Aurkeztutako tesiak jakintza adarka ebaluatuko dira.

Tesi bakoitza zein doktorego programaren barruan egin den, horren jakintza adarrari atxikita dagoela ulertuko da, programaren egiaztapen memoriaren arabera.

Beraz, doktoregaiak egindako doktorego programaren jakintza adarreko epaimahaiak ebaluatuko du tesi bakoitza, tesiaren ikerketa arlo zehatza edozein dela ere.

Eskatzaileek Doktorego Eskolaren web orrian ikusi ahal izango dute zein jakintza adar dagokion tesia egin bitartean eurak matrikulatuta egondako doktorego programari.

4.2. Jakinarazpenak egiteko modua eta argitalpena

Deialdi honen inguruko dokumentazioa eta informazioa eta interesdunentzako jakinarazpenak argitara emango dira 3.1 oinarrian aipatutako web orrian (<https://www.ehu.eus/eu/web/doktoregoa/doktorego-tesia/sari-bereziak>), eta hori izango da interesdunei jakinarazpena egiteko modua.

Eskatzaileek helbide elektroniko bat jarri beharko dute eskarian, banan banako jakinarazpenik egin behar bazaie, horra bidaltzeko.

4.3. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskarien behin-behineko zerrenda

Eskariak aurkezteko epea amaiturik, Doktorego Eskolak aztertuko du ea eskatzaileek betetzen dituzten 2. oinarrian zehaztutako baldintzak.

Eskariak azterturik, web orrian argitaratuko dira baztertutako eta ebaluazio fasera onartutako eskarien behin-behineko zerrendak, eta azken horietako bakoitza zein jakintza arlotan ebaluatuko den.

Behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hamar egun balioduneko epea egongo da erreklamazioak jartzeko. Horretarako, web orrian dagoen online formularioa bete beharko da.

Fase honetan ezin izango da merezimendu berririk aurkeztu; bakarrik onartuko da 3.1 oinarriaren arabera eskarian adierazitakoak zuzentzea.

Eskatzaileak erreklamazio bat baino gehiago aurkezten baditu ezarritako epearen barruan, jasotako azken erreklamazioa baino ez da aintzat hartuko, eta baztertuko da aurreko erreklamazioekin batera aurkeztutako dokumentazio guztia.

Era berean, epez kanpo aurkeztutako erreklamazioak ere ezetsiko dira.

4.4. Ebaluaziora onartutako eta prozesutik baztertutako eskarien behin betiko zerrenda

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda argitaratuko da. Behar den epean eta eran akatsak zuzendu ez zaizkien eskariak ezetsi egingo dira.

4.5. Ebaluazio fasea

EHUko Doktoregoko Ikasketa Ofizialen Gestiorako Araudiaren 64.5 artikulua arabera, EHUko Doktorego Eskolako Kontseilu Iraunkorrak epaimahai bat izendatuko du deialdi honetako 1. oinarrian aipatutako jakintza adar bakoitzerako. Epaimahai bakoitza kasuan kasuko arloko arduraldi osoko hiru irakasle doktore iraunkorrek osatuko dute. Epaimahaikideek gutxienez doktorego tesi bat izan beharko dute zuzenduta eta ikerketako seiurteko bat edo baliokidea aitortuta. Ezin izango dira epaimahaikide izan sarietarako hautagai diren tesien zuzendari eta tutoreak.

4.5.2. Arlo bakoitzean onartutako eskariak arlo horretako epaimahaiari bidaliko zaizkio. Orduan epaimahaia eratuko da eta hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko ditu. Eskariak baloratzeko, epaimahaiek behar duten informazio guztia eskatu ahal izango diete hautagaiei, EHUko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegiaren 64.6 artikulua arabera.

4.5.3. Ekitatea bermatzeko, epaimahaiek erabaki ahal izango dute haztapen faktoreak erabiltzea edo sariak arlo jakin bateko azpiarloen artean banatzea. Azpiarlo horiek zehazteko, epaimahaia erabili ahal izango ditu Ikerketa Ebaluatze Estatuko Batzordeak (CNEAI) zehaztutako azpieremuak, Estatuko Ikerketa Agentziaren arlo tematikoak, edota epaimahaiaren iritzi kasuan kasuko jakintza arloan aplikagarria den beste edozein irizpide.

4.5.4. Eskariak ebaluatze, epaimahaiek kontuan izango dituzte, orientazio moduan eta deialdi honetan aplikatzekoak diren neurrian, balorazioa egiteko garaian Ikerketa Ebaluatze Estatuko Batzordearen ebazpenez (CNEAI) arlo zientifiko bakoitzerako indarrean dauden irizpideak, zeinak 3.1 oinarrian aipatutako web orrian egongo diren ikusgai.

4.5.5. Hona hemen epaimahaiek baloratu ahal izango dituzten ekarpenak eta bakoitzari eman ahal izango dioten puntuazioa:

1. Nazioarteko tesia: 2 puntu.
2. Liburua: 0 eta 4 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Liburuko atala: 0 eta 2 puntu artean ekarpen bakoitzeko.
3. Indexatutako aldizkarietan argitaratutako artikulua, edo izen handiko kongresuetatik sortutako argitalpenetan plazaratutakoak, baldin eta argitalpen horiek aldizkari indexatuen parekotzat jo badaitezke beren kalitateagatik edo nazioarteko rankingetan daukaten posizionamenduagatik, CNEAIren indarreko ebazpenak kasuan kasuko eremu zientifikorako ezarrita dauzkan irizpideen arabera: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Gehienez (5) artikulua onartuko dira, eta erreserbarako beste bi (2) gehienez, guztiak ere kasuan kasuko adarrean izen handia daukaten datu baseetan indexatutako aldizkarietan argitaratuak.

Erreserbako artikulua bakarrik ebaluatuko dira berdinketarik sortuz gero. Puntu bat gehiago emango da euskaraz idatzitakoak badira.

4. Patenteak: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko.
5. Arte sorkuntza: 0 eta 5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Ekarpene mota hau CNEAik argi eta garbi hala adierazita daukan eremuetan baino ez da ebaluatuko.
6. Kongresuak: 0 eta 0,5 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Epaimahaiak kongresuen kalitatea baloratuko du (txostenak ebaluatzen dituen batzorde zientifikoa, nazioarteko kongresua izan den ala ez...). Ez dira aintzat hartuko 4.5.5 oinarri honetako 3. puntuaren baloratu diren ekarpenak. Kongresuen atalean gehienez ere bi puntu lortu ahal izango dira guztira.
7. Sariak: 0 eta 2 puntu artean ekarpen bakoitzeko. Epaimahaiak sariaren garrantzia eta kalitatea baloratuko du.
8. Bestelakoak: 0 eta puntu 1 bitartean atal osorako. Epaimahaiak ebaluatuko du tesitik sortuak diren eta aurreko ataletan baloratu ez diren ekarpenen kalitatea.

Argitalpenak baloratzeko, nahikoa izango da kasuan kasuko argitaletxe edo erakundearen behin betiko onarpena izatea.

Epaimahai bakoitzak erabakiko du, bere iritzia arabera, aipatutako ekarpenetatik zeintzuk diren bere jakintza arloan ebaluatzeko modukoak eta zein puntuazioarekin, ezarritako mugen barruan eta modu arrazoituan. Horretarako, epaimahaiak kontuan hartu ahal izango ditu, besteak beste, egileen hurrenkera, egileen kopurua edo garrantzitsu deritzen beste elementu batzuk.

Berdinketarik egonez gero, tesiaren eta bere ekarpenen eragin sozial edo zientifikoari erreparatuko zaio, bai eta 4.5.5 oinarri honetako 3. puntuaren aipatutako erreserbako bi argitalpenei ere.

4.5.6. Epaimahaiak akta egingo dute eta EHUko Doktorego Eskolari helaraziko diote. Honako xehetasun hauek jasoko dituzte bertan:

- Epaimahaiaren bileraren lekua eta data.
- Epaimahaiaren kideen izenak.
- 4.5.3 atalean aipatutako haztapen edo **azpiarlo**en arabera banaketari buruzko irizpideak, eta azpiarlo bakoitzean, halakorik egonez gero, emango den sari kopurua.
- 4.4.5 oinarrian aipatutako **ekarpen**etatik jakintza arlo bakoitzean baloratu diren **zerrenda**, eta ekarpen bakoitza puntuatzeko erabilitako irizpideak.
- Eskatzaileen zerrenda, bakoitzak lortutako puntuazioarekin, behar bezala desglosatuta eta azpiarloa adierazita, hala badagokio.

- Sari berezirako proposatutako pertsonen zerrenda, izen-deiturekin.

Aktak epaimahaiko kide guztiek sinatuko dituzte.

EHUko Doktoregoko Ikasketa Ofizialen Gestiorako Araudiaren 64. artikulua arabera, sariak eman barik utzi ahal izango dira.

4.6. Merezimenduen behin-behineko balorazioa

Doktorego Eskolak epaimahaien balorazio proposamenak aztertuko ditu. Proposamen horiek behin onartuta, pertsona bakoitzak lortutako behin-behineko puntuazioa argitaratuko da web orrian, arlo edo azpiarlotan bakoitzean erabilitako balorazio irizpideekin batera, eta hori izango da interesdunei jakinarazpena egiteko modua.

Interesdunek gehienez hamar egun balioduneko epea izango dute behin-behineko balorazioaren kontrako erreklamazio arrazoituak aurkezteko, hura argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Aipatutako epean alegaziorik jaso ezean, balorazioa onartutzat joko da eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da. Eskatzaileak erreklamazio bat baino gehiago aurkezten baditu ezarritako epearen barruan, jasotako azken erreklamazioa baino ez da aintzat hartuko, eta baztertuko da aurreko erreklamazioekin batera aurkeztutako dokumentazio guztia.

Era berean, epea kanpo aurkeztutako erreklamazioak ere ezetsi egingo dira.

4.7. Behin betiko erabakia

Doktoregoko Ikasketa Ofizialen Gestiorako Araudiaren 64.7 artikulua arabera, Doktorego Eskolak, aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Graduondoko Batzordeari sari bereziak emateko proposamena egingo dio.

Doktoregoko Ikasketa Ofizialen Gestiorako Araudiaren 64.8 artikulua arabera, EHUko Graduondoko Batzordeak, EHUko Doktorego Eskolak egindako proposamena ikusita, doktoregoko sari bereziak emateko proposamena onartuko du. Erabakia deialdi honen web orrian (ikus gorago) argitaratuko da, eta horrela egingo zaie jakinarazpena interesdunei.

5. ERREKURTSOAK

Deialdi honek eta doktoregoko sari bereziak esleitzeko EHUko Graduondoko Batzordeak hartutako behin betiko erabakiak ez diote ematen amaiera administrazio bideari, eta horien aurka gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsioen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari (EISBA) hilabeteko epean, deialdia nahiz behin betiko erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, horrek ezertan eragotzigabe beste edozein errekurtsio jartzea.

Gorako errekurtsioa jarri denetik hiru hilabete igaro badira erabakirik jakinarazi gabe, administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da, eta orduan

administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko
administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Batzordeko burua

Ainhoa Berasaluze Correa
Graduondoko eta Etengabeko
Ikaskuntzako errektoreordea

Idazkaria

Amaia Landera López
Graduko Ikasketen Zerbitzuko
burua